

Bakea nola eraikitzen den

Bakea behar dugu” zioen kartela jaitsi zuten urriaren 27an Bizkaiko Foru Aldundiko balkoitik behera, ETAk jarduera armatuaren behin betiko etena iragarri eta astebetara, justu-justu.

EAJ, PSE eta PPko ordezkariak pentsatu omen zuten ez dugula Bakearen aldarrikapena egiteko premiarik, dagoeneko badugulako. Eta alderantzizkoa da nire irudiko: orain behar dugu asmatu nola eraikitzen den bakea, gure historian ez baitugu aurrekaririk.

Egunotan dezente mintzatzen ari da gaiaz. Bilbon mintzatu dira, besteak beste, Nour Aldin Shehada palestinarra, Andrea Leblanc estatubatuarra eta Avner Horwitz israeldarra, Sabino Arana Fundazioak ekarrita. Palestinarrak Israelen aurka jardun zuen armaz Combatants for Peace elkarteko kidea izan aurretik. Beraren arabera, gakoa da “mahai berean esertzeko gai izatea. Ondoan egon, entzun, aditu, eta bestearen lekuan jartzea, sentimenduak dituen pertsonatik pertsonara. Bestearen egia entzun, eta bestearen sufri-mendua sentitzea”. Antzeko hitzak ditu Andrea Leblanc-ek. Bere senarra Dorre Bikien aurka jo zuten bi hegazkinetako batean ziholan. Leblanc-ek dio “nahiz eta gure artean oso desberdinak izan, nahiz eta hizkuntza desberdinak hitz egin, besteen sentimenduak ulertzeko gai gara, eta horixe da baketzearen alde elkarrekin lan egitea ahalbidetzen duena”.

Bai, baina ez. Bai, hitz egin behar da, noski, baina baketzea ez da oinarritu behar sentimenduetan. Ideiari bueltak ematen nengoela Paul Rios Lokarriko koordinatzaileak esan du pentsatzen dudana: “Barkamena eskatzeak biktima behartzen du erantzutera. Eta hori ez da bidezkoa. Nik nahiago dut eragindako minaren errekonozimendua”.

Erabat ados.

“Barkamena eskatzeak” jite erlijiosoa dauka eta moralaren eremuan murgilarazten gaitu. Baina morala boteretsuak ezartzen du (Nietzsche), unean uneko legeak diktatzen ditu eta *ad hoc* egindako araudia da. Ez du zerikusirik etikarekin.

Barkamena eskatzen da araua ezarri duenaren balore-eskala bera ontzat eman eta bekatua/erredentzioa dinamika onartzen bada. Bestelako kontua litzateke etikaz mintzatzea, etika garaiko moralaren gainteko balorea baita. Etikak dio erailtzea deitoragarria dela. Beti. Moralak, aldiz, gaitzetsi dezake Guardia Zibilaren erailketa eta txalotu Bin Laden edo Muamar al Gadafi asasinatzea. Kondena dezake Mikel Zabalza hiltzea eta goratu Carrero Blanco edo Meliton Manzanasen erailketa. Moralak ideologia bati erantzuten dio, etikak ez.

Beraz, utz ditzagun barkamen-eskeak eta onar dezagun eragindako mina, horretarako nahikoa baita lekualdatze-ariketa egitea: norbera bestearen lekuan jarri eta talaia horretatik begiratu arazoari; eta, alderantziz, hurkoa norberaren lekura ekarri eta erakutsi nola ikusten diren gauzak espazio horretatik. Zintzo begiratu gero berezkoa da arerioaren ikuspuntua ulertzea.

(UK aldizkaria, 204 zk.)



INIGO AZKONA

Laura Mintegi

»
Utz ditzagun
barkamen-eskeak
eta onar dezagun
eragindako mina,
horretarako
nahikoa baita
lekualdatze-ariketa
egitea: norbera
bestearen lekuan jarri
eta talaia horretatik
begiratu arazoari
»